

## “GAI DAGONAREN INDARRA”

### JOSTIRUDIA EKITALDI BATEAN.

BARRIOLA ta AIZPURUA'tar Abelin'ek  
1915'garren urtean idatzia.

1935.-TOLOSA'n

I. LOPEZ-MENDIZABAL'enean

### ANTZEZ-LAGUNAK.

ANDRE EULALI..... (50 urtekoa)  
KARMENTXO..... (20 urtekoa)  
LUISA..... (neskamea)  
KLETO..... (52 urtekoa)  
SERAPIO..... (27 urteko sendagillea)  
PATXI..... (27 urtekoa)

Ezker-eskubiak irudigilleenak.

### GAI DAGONAREN INDARRA.

Iruditegian ikusiko degu etxe on bateko etxekoandreairean lan-gela.  
Ezker-eskubitan ate bana.  
Atzean, eskubitarra, leio aundi bat, ta ezkerretara ate irikia.  
Udararen erdi-erdian gera, arratsaldeko iruretan. Eguraldi ederra ta eguzki bete;  
bero da. Leiotik sartzen da eguzkia, bañan ez nai aña, *kortina* bat bai dago botea.  
Josteko mai txiki bat leio ondoan ta aundiagoko bat ezkerretan.

### LENENGO AGERRALDIA

Andre Eulali ta Kleto.

*(Andre Eulali josteko mai txiki aurrean dago, eskuan lana dula. Kleto, ate ondoan, norbaiteri ojuka. Maukutsean dago, izerdi plei, ta asarre).*

KLETO                      Orratx azkenean!... orain zoaz pakean!  
EULALI                     Bañan gizona, atoz onera!  
KLETO                     Zaude ixilik zu ere.

EULALI Bai, danok ixilduko gera zure aurrean. Zu gizon aundia izan nunbait!

KLETO Ta zu berritsu aundiagoa.

EULALI Andre gaxoa biali duen itxuran!

KLETO Emakumea, nolabait ere biali bear nuen, iñola etzuen joan nai ta.

EULALI Saiatu gabe badakizu eztala ezer irixten, ta orrengatik gaxoak orrenbeste bider eskatzen zizun.

KLETO Bañan esaten ez nion ba baietz, esker ori egingo niola? Zazpireun aldiz gutxienaz esan diot, eta, sorgin arrek! beti berea... (*andre aotsakin*) “Etzait neri iñor *inkomodatzia gustatzen*, bañan alargun gaxoak zerbait egin bear degu...” ta *inkomodatu* gora, ta *inkomodatu* bera, alargun gaxoa gora ta alargun gaxoa bera, azpertu, mariatu ta erneatu arte.... alargun gaxoa?... ez, senar gaxoa!... zerbaitengatik il zan.

EULALI Zaude ixilik gizona, zeorri ere alarguna zera-ta.

KLETO Gaurko nere bazkalondoko lo kuluxka galdu azi dit... Arranoen andrea!

EULALI Berriz?

KLETO Nola ez! Gaurko beroa eramatea naikoa eztala etorriko zait ba, *enplasto* ori! bazkaria oraindik ortzetan daukatela? Begira nola nagon, ikutu, ikutu nere garrondoa... plei plei!

EULALI Nai dezulako.

KLETO A, bai! txit gustora nago! galeperra saltzan bezelaxen... txit gustora!

EULALI Gu emen gaude ba orrenbeste erneazio gabe.

KLETO Zazpi *pañuelo* busti nituen atzo. Gaur badaramazkit (*galtzen patrikatik atereaz*) bat... bi... iru... ta gañera arkakusoak, eltxoak, andre alargunak... a!... txit gustora! txit gustora!

## BIGARREN AGERRALDIA

### Lengoak eta Karmentxo

KARMEN Aita, beorren gela illunpean iduki degu, ta *prexko-prexko* dago; bijoa, bijoa ikustera.

KLETO Ta paretetan ez al daude eltxoak *prexko-prexko* ni joan zai?

KARMEN Ezta bat ere. Luisa ta ni ibilli gera danean begira, ta eztegu bat ere arkitu.

KLETO Bart bazan ba. *Kontziertua* nere kontura an jo du.

KARMEN Ez daka ba granorik. Egin lezake lo patxaran.

KLETO Beldur naiz ba, ta gañera gaur.

EULALI Gizona, egun batekoa botako aldezu lo egin gabe. Gabean egingo dezu naikoa.

KLETO Nik? Bart bezela. Eztet ordu beteko lorik egin. Beroarekin ito bearrean ez naiz *bueltaka* gelditu ordubiak arte, ta orduan, len esandako eltxoa asi da *bueltaka* ta ez da gelditu... goizeko zazpiak arte... uuu... uuu... uuu! egintzazu lo!

KARMEN  
KLETO

Nik uste det orrenbeste aitatuaz dei egiten diola eltxoari.  
Bai, bakarrik negon eta *konpañia* izate arren... ta emen dakaten  
arkakoso oni ere bai (*gerria joaz*) a zikiña! a zikiña! (*Joaten da  
ezkerretako gelara.*)

#### IRUGARREN AGERRALDIA

Andre Eulali, Karmentxo, (barrenen Kleto) gero, Luisa.

EULALI  
KARMEN

Ez dauka zure aitak, udara botarik, oraindik Uztan gera ta.  
Beste urteetan etzan orrenbeste gogoratzen. Egia, aurten bero  
aundia da.

EULALI

Igaro bear ko du ba nolabait ere. Erneatu ta asarre ibilliaz ez da ezer  
aurreratzen. Gizon danena ori da; oju egin, bulla atera ta agindu,  
besteak egin dezaioten, bañan guk zeruko giltzik eztegu ta ezingo  
degu eguzkia ezkutatu, ezta beroa kendu ere.

KARMEN  
EULALI

Aurreneko beroak beti geiago galerazten dute.  
Aurrenekoak ta azkenekoak berdin dira zure aitarentzat. Ez da  
egongo ori baño gaxogorik eguzki betean soroan lanean, ta baita  
errian bertan ere.

KARMEN  
EULALI

Bat baño geiago.  
Zure ama gaxoa (G.B.) bizi zala etzan orren zakarra; geroztik jarri  
da onela. Neri etorri zait nai ez nuena. Ezkondu gabe gelditu  
senarraren *pazientziak* ez eramateagatik, ta orain anaiarenak oso-  
osorik eraman bear. Gaur beñepein goxoa dago.

KLETO  
KARMEN  
EULALI

(*barrendik ojuka*) Ixo, ixo!...  
Aita ojuka... ta ixilik egoteko dio...  
Nik esan eztet!... eztakit nik gaur zer duen... Ixilduko gera. (*Ixillaldi  
bat. Biok josten jarrai*).

KARMEN  
EULALI  
KARMEN

Eztegu ba besteetan baño bulla andiagorik egin.  
(*Ezetz buruaz, ta gero aoa asko irikiaz bañan ixilik*) Guraiziak.  
(*Karmenek eman. Len izebak bezela*) Ari zuria.

EULALI  
KLETO  
EULALI

Tori.  
(*Barrendik len bezela*) Ixo!... ixo!...  
(*Lana mai gañean boteaz*). E!... Zure aita erotu egin da, edo erotu  
egin nai gaitu.

KARMEN  
EULALI

Ametsetan ote dabil andre alargun arrekin? Ikustera noa.  
Zoaz nai badezu. Ni aurreko aldera noa lanera, an pakea izango det.  
(*Karmen aitaren gelara ta Andre Eulali ate onditik deituaz*) Luisa...  
Luisa.

LUISA  
EULALI

(*atean agertuaz*) Zer bear du?  
Eraman zaidazu laneko maia nere logelara. Ixilik e!... (*maia artu ta  
joaterakoan agertu Karmen*).

KARMEN  
LUISA  
EULALI

A, Luisa! Emen al zera?  
Bai, andrea.  
Zer du?

KARMEN Gurekin ezer ez. Itz egin genezake. Goiko aurren bullak ez omen diote lo egiten uzten. (*Luisa'ri*) Gora zoaz, ta ixilik egoteko esan, ta aurre aldera bota ditzala aurrak. (*maia artuaz*) Eramango al det?

EULALI Bai, goazen. Nere logelara noa.

KARMEN Ez bedi joan, izeba; an bero dago.

EULALI Ta zure aitak?

KARMEN Etzuen gurekin. Geldi gaitzen. Zoaz Luisa gora, ta bereala ixiltzeko. (*Luisa irten. Biak len bezela lanean*) Goxoa zegon! Bai al daki zer esan didan? Goiko maizter ori bereala kalean jartzeko. Arren etxea ez tala *Plaza de Toros* ta ezta Pelota plaza ere, ta *juiziorik* ez tutelako etxea bete badute aurrez, kulpik ez tuela berak ta aidean joateko.

EULALI Zure aitaren ateraldiak. Juiziorik ez?... Orretaz berak ogei aur bear zituen izan ta ez bat.

#### LAUGARREN AGERRALDIA.

Lengoak eta Serapio

SERAPIO (*Dotorea, ongi jantzia, tentea, guanteak jantziak dakarzki. Iñori ez tío eskurik ematen*). Barkatu ots egin gabe sartu banaiz. Atea irikia zegon ta...

EULALI Atea irikia?

KARMEN Gora joan danean Luisak utziko zuen.

EULALI A! egia! Ondo egin dezu; osabaren etxea zurea dala badakizu.

SERAPIO Eskarrikasko izeba. Karmentxo, bart ezkerro nola?

KARMEN Ongi, ta zu?

SERAPIO (*eseriaz*) Ez zu bezin ongi. Berandu oieratu ta goiz jaiki, lan asko ta lo gutxi, ez da batere alai egoteko modua.

EULALI Gaxo asko aldakaizkitzu?

SERAPIO Bolara onetan bai, bañan bat badaukat, atso zar bat, beti bere ondoan egotea naiko lukena. Gaur ordubitan ez tit ba ots egin! Biotzak noizean bein *tak, tak* egiten ziola, ta geio gabe deitu dit. Zoaz oia utzi ta atso arren txorakeriak entzutera.

KARMEN Ta, zer agindu diozu?

SERAPIO Ezer ez, ni ikusi utsarekin sendatu da ta.

EULALI Aberatsa al da?

SERAPIO Txit.

EULALI *Lastima*, gaztea ez tala, bestela zer-edo-zer egiteko gaien ziñateke.

SERAPIO Ni arrekin? Ez, arrena gauza bat bakarra artuko nuke... dirua. Sinista bezait izeba, gaur ordubitako deia pagatu bear dit.

EULALI Dabaneko diru gosean zera?

SERAPIO Dabaneko? Zer egin det ba ogeitazazpi urtean gastatu besterik? Garaia da irabazteko, ta irabaziko det. Batean edo bestean saiatuko naiz nere izena ezaguna izan dedin, eta lana sortu dezaidan. Aberastu nai det.

EULALI  
SERAPIO Lan asko egiñaz, gaxo asko sendatuaz, ez da bide txarra.  
Bañan gaitza. Lantegi onetan asko gera dirua erruz irabazteko. Eztet atzena gelditu nai, danen aurrean jarri nai det.

EULALI  
SERAPIO Gauza bazera aurreratuko dezu.  
Gauza diraden asko atzean gelditzen dira. Ez da aski jakitea, dakiela ere erakutsi egin bear da, ta oraindik geio, itzezin azi.

EULALI  
SERAPIO Ta zuk?  
Egin aziko det. Bigarren idaztitxoa argitaldu det. (*Patrikatik atereaz*).

KARMEN  
SERAPIO Lengo gai berean?  
Berean. Nere ustez ori da gairik onena, beldur geiena ematen duena, orain geiena aitatzen dana, tuberculosis! tisis! gaitz epela! biriketako gaitza! zuk, zuk aberastu bear nazu! Gaitz orren izaerak, asierak ta gora-berak ondo ikasi ditut. Koch<sup>1</sup> *mikrobio*'aren almena; gure gorputzean sartu, ernetu ta azitzeko; ta zer egin bear degun ez kutsutzeko, ori da nere bigarren lana.

EULALI  
KARMEN  
SERAPIO Karmen, lengusu bizia sortu zaizu au.  
Ala diruri.  
Patxi'k aña diru banu ez nintzake orrenbeste saiatuko.

EULALI  
SERAPIO Nola? jakintasuna ta doai guztiak uste al dezu eman dizkizula Jaungoikoak dirua bakarrik egiteko?  
Ez, lana bide on ta zuzenez al dan geiena egiteko; bañan sinistra bezait izeba, azkar aspertzen gera akullu zorrotz orrek zulatzen ezpagaitu.

EULALI  
SERAPIO Ez du beti diruak ekartzen ontasuna.  
Bañan ontasunerako laguntzalle andia da.

KARMEN Ezta jakintasuna ere. Ez litzake, bestela, Patxi orren kirtena. Bart antzokian erneatu ninduen.

EULALI  
KARMEN Borondate aundikoa da ba.  
Bai, baña, traketz utsa. Automobillak, zaldiak, zakurrak, oiek dira beti bere itz gaiak. Zoro-zoro par egin, nolana bulla atera ta kito.

EULALI  
KARMEN Diru asko du ordea.  
Ta, zer? Ni ere ez naiz esku utsik jaioa, bañan ez dit galerazi bear dana ikasteko, ta izketan jakiteko.

SERAPIO Karmentxo, zu bezelakoak gutxi dira.  
Ez naiz bakarra.

KARMEN Zure aitari gustatzen zaio ba Patxi.  
Bere antzekoa dalako.

SERAPIO Eztakit orrengatik edo bere lagun aundiaren semea dalako, bañan...  
A, dirua! dirua! Ori da, bai etxe ta bai biotz askotako ateak irikitzen dituen giltza.

## BOSGAREN AGERRALDIA

<sup>1</sup> Esan *Koj*, alemanezko itza da-ta.

## Lengoak eta Kleto

(Sartuko da maukutsik, galtza utsak jantziarekin; esku batean zapatilla ta aidean dabillen zerbait arrapatu naian. Atzenez makurtu ta joko du Serapio bizkarrean)

KLETO A! a!... arrapatuko at!... arrapatuko at!... a!... a!... to!!  
SERAPIO (ondorengo itzak ta egite guziak oso bizi) Ai!  
EULALI Zer zabiltz?  
KARMEN Aita!...  
KLETO Zikin au zan, au zan.  
SERAPIO Ni?  
EULALI Ori ta ni ta danak. Orrenbesteko bulla egiten al gendun?  
KLETO Bulla... iuuu... belarri batean... jo ta uts! iuuu... bestean zapla!  
(*arpegia joaz*) ta uts, iuuu... berriz, azkenean erneatuta jeiki oetik ta atxitu arte ez naiz gelditu.  
SERAPIO Bañan zein zan?  
KLETO Bart lo egiten utzi etzirana; prexko-prexko ni joan zai gelan zegoana zanpa-zanpa eginda zure bizkarrean il detan eltxo madarikatua.  
EULALI Au gizon eroa!  
SERAPIO Ja, ja, ja!... eman didan ikara.  
KARMEN Nere aitaren gauzak.  
EULALI Eltxo batengatik ibilliko zera orrela?  
KLETO Bat, bai, bañan nolakoa. Ziur nago ta emea zala.  
EULALI Zergatik diozu?  
KLETO Berritsua ta mingain luzea zalako.  
EULALI Eskarrikasko loreakgatik.  
KLETO Eztet zuregatik esan.  
EULALI Ba nik zuregatik diot lasai aundia zerala. Itxura orretan iñoren aurrean etorri.  
KLETO Nere illoba aurrean dagolako?  
SERAPIO Ez, ez, neregatik...  
KARMEN Ondo daki nere aita nor dan.  
KLETO Lasaiagoa da or aurreko atsoa. Eztakizutela zer egin duen?  
EULALI (*galerazi naian*) Ez ta jakin nai ere.  
SERAPIO Zer egin du? (*Jakin naian*)  
KARMEN Zer egin du, aita?  
EULALI Ba, ba, ba...  
KLETO Arrapatu arkakosoak ta bizi-bizirik kalera bota. A, zikiña! Kanean dijoan gizaxoak jaso ditzala arrek guri-guri asitzen dituen zezenak.  
KARMEN Serapio, ez al dezu ikasi nola galtzen diran pizti oiek?  
SERAPIO Ez, nik agertzen eztiranak galtzen dakit.  
KLETO Neri etzaizkit ba ajola agertzen eztiranak, agertzen diranak bai. Ara! (*gerrira eskuak eramanaz*) emen dabillen au azkazal tartean baneuka! Zenbatekoa ote da! Bi egun bada nere jaun ta jabe dala, ara!... orain *bulebarrian* dabil...  
SERAPIO Nun?

KLETO Bizkarrean.  
 EULALI Emea ote da ori ere?  
 KLETO Emea ta alarguna, lengo andre ura bezela. Serapio jo zak emen, jo zak emen...  
 SERAPIO (*guantea jantzi*) Bereala.  
 KLETO Guante ta guzti? zertako jazten dek ori, eskua ez zikintzeko?  
 SERAPIO Min geiegi ez emateko (*bizkarreko txiki batzuek emanaz*)  
 KLETO Mutil, jotzen ala arkakosoari azkure ematen ari aiz? Jo zak sendo, ez nak puskatuko. (*Serapiok gogor jo*)

### SEIGARREN AGERRALDIA Lengoak, Luisa ta Patxi

LUISA Nagusi jauna?  
 KLETO Zer?  
 LUISA Señorito Pako'k beorrekin egon nai du.  
 KLETO Patxi? Datorrela.  
 SERAPIO Patxi orain onera!  
 EULALI Ez datorrela. Guk joan egin bear degu, ta zuk...  
 KLETO Zoazte ba, ni geldituko naiz.  
 EULALI Bañan itxura orretan zaudela ekarriko al dezu iñor aurrera?  
 KLETO Itxura! Eztet zuek aña kolko ta beso ageri. Datorrela.  
 KARMEN Ni banoa.  
 EULALI Ni ere bai, dagola bera bakarrik.  
 SERAPIO Itzegin nai nuen ba nik zurekin.  
 KARMEN Atoz ba nerekin.  
 PATXI (*sartu ordurako bi eskuak danari emanaz, Serapiori ez*) Arratsaldeon.  
 KLETO Bai zuri ere.  
 PATXI Kaxo, andre Eulali, nola dago?  
 EULALI Ongi, ta zu?  
 PATXI Txit ongi.  
 EULALI (*berez, alde batera, ta beatzai elduaz*) Astoa! zapaldu dit eskua.  
 PATXI Ta zu Karmentxo?  
 KARMEN Oi, gizona! indarrean zatoz.  
 PATXI Barka zaidazu Karmentxo.  
 KLETO Gaur txit minberak daude andreak, beroak beratu ditu nunbait.  
 PATXI Baliteke.  
 KLETO Aita irten al da?  
 PATXI Oraintxe zijoan kalera. Gero elkar ikusiko dutela esan dit.  
 EULALI Barka zaidazu, Patxi. Bagoaz gu.  
 PATXI Karmentxo ere bai?  
 KARMEN Baita, lagunak bereala ditut eta...  
 PATXI Itzegin nai nizun ba...  
 KARMEN Orain eztakat betarik... gero...

PATXI Zoaz, aitari esango diot.  
KLETO Zoazte, nerekin geldituko da.  
EULALI Agur, gero arte.  
PATXI (*Bi andreaki esku emanaz*) Agur, andre Eulali. Agur, Karmentxo.  
Agur, Serapio. (*Joango dira eskuitako gelatik*)

### ZAZPIGARREN AGERRALDIA. Kleto ta Patxi

(*Itzaldi onetan sartuko da noizean bein Kleto bere gelan ta ekarriko ditu bear dituen jantziak*)

KLETO Exeri ta itzegin. Ni bitartean jantzi egingo naiz.  
PATXI Esan bear gutxi det. Bart antzokian nintzan, ta an ikusi nuen Karmentxo bere izebarekin.  
KLETO Bai, astean egun batean usten diotet.  
PATXI Ori da ba... bañan *konpañi* oso ona da, ta ederki antzerkiak agertzen dituztelako, gaur gabean berriro joateko gogoia agertu zuen.  
KLETO Ta, zer, baimena eskatzera al zatoz?  
PATXI Bai, ta...  
KLETO Eztet ba nai izaten sarritan antzokira joatea. Oitura artzen da, ta gero gaitzago izaten da joan gabe gelditzea.  
PATXI Gau batekoagatik.  
KLETO Bat ez, bi; bartkoa, ta gaurkoa.  
PATXI Gaurkoarekin bi, bai. Orduan baimena ematen al dio?  
KLETO Eztet nik oraindik ezer esan.  
PATXI Ez, egia da... Ba nik... beorrek galeraziko etziolakoan sarrerak artu ditut. Gelatxo bat.  
KLETO Ai, ai, ai! Ori ere egin badezu baietz esan beariko. Etzerate gaizki moldatu zu ta nere arreba, ta alaba, ta denak, nai dezutena egiteko.  
PATXI Eskarrikasko.  
KLETO Belarriko tinka bat eman bear diot Karmentxo'ri.  
PATXI Ez, arri ez. Eztit arrek agindu. Gogoia agertu zuen ta neretzat arren gogoia agintze bat da. Ar beza sarbidea.  
KLETO Zeorrek emango diozu.  
PATXI Naiago det berorrek ematea.

### ZORTZIGARREN AGERRALDIA Lengoak, Andre Eulali, Karmen ta Serapio.

SERAPIO Agur izeba. Agur Karmentxo.  
PATXI (*esku emanaz, oso pozik*) Agur Karmentxo, gau arte.  
SERAPIO (*ate ondolik*) (Gau arte?)... agur osaba.





## AMARGARREN AGERRALDIA

Kleto ta Andre Eulali

- EULALI (atzetik sartuaz) Zer da? Zer da?  
KLETO Utsa! Lumatu baño lenago egatu. Zure illobak gogoak ematen diona egin nai dula bañan nerekin ez dula egingo.
- EULALI Gizona! zer eskatu dizu? Bart bezela gaur ere uzteko...  
KLETO Bai, bañan, berak nai duenarekin.
- EULALI Bere lengusuarekin. Eta arritzeko gauza, ta ezta aurrenekoa ere.  
KLETO Izan zan agian azkenekoa. Eulali, entzun zaidazu ondo: Eztet nai geiago Serapio nere alabarekin ibiltzea. Arranoen eskallua! Sendagille egin dala ta orren arrokeriak! Zerbait idatzi dula ta orren lotsagabekeriak!
- EULALI Illoba batentzako itz politik asi zera esaten.  
KLETO Osaba batentzako gauza politik egiten dizkit neri onek.  
EULALI Zuri?  
KLETO Neri. Ez al dezu ikusi egundaño eskurik eztidala ematen? Etxeko zer nai gauza ikutzeko beldurrez dagola? Jateko ere tximuen antzera ibiltzen dala? Txorakeriak besterik esan ta idazten ez ditula.
- EULALI Gogor artu dezu gaur.  
KLETO Bear bezela. Agian garaiz. (artuko du Serapiok mai gañean utzi duen idaztia, ta asiko da berez irakurtzen)
- EULALI (une batean irakurtzen utzi ondoren). Orrenbesteko txorakeriak idazten ote ditu ba? Zuk daukazu zentzun gabekotzat, ta nik mutil azkartzat.
- KLETO Emakumea! Esango dezu azkarra dala gauz abek jartzen dituen (irakurriaz): “Eskua alkarri ematea oitura txit txarra da. Besteen *mikrobioak* artzen dituzu zeorren eskuan, ta emendik erraz eramaten dira ezpañetara ta aora!...” “Oitura zikiña, ta guztiz kaltegarria da aurrai musu ematea. Ezin litezke esan zenbat gaitz sortzen zaizten aingerutxo oiei oitura zikin orretatik...” “Gizaseme... bizardunak... musu ematean uzten dute, gaxoa, mikrobioz betea...” Gezur-zulo!
- EULALI Askorentzat ez dator gaizki ori.  
KLETO Orrek esaten dituen txorakeri guztiak egin bear bagenituzke, gaxoak gu!
- EULALI Nik badakit ba, zure illoba, eztala ez asko ta ez gutxi txoroa.  
KLETO Gauza batzuetarako ez. Nere alabaren ondoan dagoanean eztute arren *mikrobioak* ikaratzen. Banoa, banoa. Etorriko naiz laister txokolatea artzera.
- EULALI Orduan gaur eztago teatrora joaterik.  
KLETO Serapio’rekin ez. Patxi’rekin nai badu bai.  
EULALI Patxi’rekin bai?  
KLETO Patxi’rekin bai. Orrek aurrena baimena eskatu dit. Ori beste mutillik da! Obe luke Serapiok orren patxara baleka. Ara non dan ekarri **dedan** sarrera (emanaz) nai badezute artu. (joan)
- EULALI Tontoa dala bañan azkar ibilli da.

## AMAIKAGARREN AGERRALDIA

Eulali ta Karmen; bukaeran Luisa

KARMEN *(irtengo da sartu bezela erdi negarrez ta asarrea ezin gorderik)*  
Entzun det guztia, aditu det dana, bañan eztet aitak nai duenik  
egingo.

EULALI *(patxaran)* Orduan badakizu; oera.  
KARMEN Gaur, bigar, ta beti. Ez naiz geigo teatrorra joango.  
EULALI Zaputzak al ditugu?  
KARMEN Serapio'rekin itz egiten detalako, beok aritu diran bezela senargaia  
dala-ta... esaten.

EULALI Nik?  
KARMEN Bai, biak, biak...  
EULALI *(oso patxaran. Patxara onek geigo erneatzen du illoba).* Ta... egia  
alda?

KARMEN Ez, ez, ta ez.  
EULALI Nik uste det ba...?  
KARMEN Ezta ba egia, ezta ba egia...  
EULALI Ez, ez, ez.  
KARMEN Gezur ori esan! gezur ori esan!  
EULALI Uun!...  
KARMEN Ixilik bego.  
EULALI Itzik esaten al det ba nik?  
KARMEN Bai, beok naiko lutekena da ni gaur Patxi'rekin joatea.  
EULALI Nik ez.  
KARMEN Bai, bai, bai...  
EULALI Ez, ez, ez. Erlojua dirudizu.  
KARMEN Bañan ez naiz joango. Nik eztet ezer ez batekin, ta ez bestearekin.  
EULALI Ezta ezer ere.  
KARMEN Ez ba, ez ba...  
EULALI Ez ba... Agian oraindik monja joango zera.  
KARMEN *(arren ziriari petral erantzunaz)* Edo neska zar geldituko naiz...  
berorri bezela.

EULALI *(sumindu bañan jarrai patxaran)* Bide txarra daramazu.  
KARMEN *(negarrari ekiñaz)* Orratx! Nik esaten dedana... Beorrek uste dula  
nik **oekin** zerbait detala...

EULALI Nik uste det zu orain ondo etzaudela. Zoaz... ta etzan zaite oean...  
KARMEN Bai, ta ez naiz jaikiko bigar goiz arte *(gelaruntz joanaz.)*  
EULALI Amets gutxi egin.  
LUISA *(atetik)* Etxekoandrea!  
KARMEN Zer da?  
LUISA Señorito Serapio'k berorrekin egon nai dula.  
EULALI *(Karmen'i)* Zer egingo degu?  
KARMEN Berorrek nai duna.  
EULALI Ez, ez, zuk nai dezuna.

KARMEN (apalkiro, ta ukatzen dionerako sarrera, negarrari ekin ta joan)  
Orduan bialdu.  
EULALI (Illobatzaz kupituta) Orduan... sartu. Datorrela.

AMABIGARREN AGERRALDIA  
Andre Eulali ta Serapio

SERAPIO Arratsaldeon izeba! Ta Karmentxo?  
EULALI Oeratu egin da. Buruko min pixka bat etorri zaio.  
SERAPIO Bañan gaberako sendatuko al da? Antzokiko txartelak artu ditut.  
EULALI Alperrik dituzu; gaur ez goaz.  
SERAPIO Nola? Osabak galerazi al dio?  
EULALI Bai, alaxen da Ba. Ta ez gaur joatea bakarrik, baizik aurrera ere zurekin ibiltzea.  
SERAPIO Izeba, zergatik?  
EULALI Eztakit. Bañan zeon arteko zer-edo-zer sumatu ote duen uste det.  
SERAPIO (susmuak minduta) Izeba, ulertzen det. Uste dute ni emen nabillela Karmentxo'rengatik, bañan gaizki pentzatzen dute.  
EULALI Nik ez.  
SERAPIO Bai, bai, danak, danak.  
EULALI (berez) Bestea bezela *repetizioarekin*.  
SERAPIO Ezta ba egia, ez, ta ez.  
EULALI Begira, Serapio...  
SERAPIO Osaba non da? Arri ere esan bear diot.  
EULALI Etxean ez da; bañan entzun zaidazu. Zuk Karmentxo'k bezela dirua ez izan arren, eztet nik ain gaizki arkitzen zuen alkarganako maitasuna.  
SERAPIO Bañan ezer ezpadegu!  
EULALI Ondo da. Ezer bada edo ezpada or konpon zuek; bañan Serapio, aita zure alde jartzeko, zentzun gabeko gauza batzuek utzi bear dituzu. Konturatu da eskurik beñere ezdizula ematen, eztezula ezer ikutu nai, badirudila, etxe onetan beldurrez zaudela.  
SERAPIO Ta ori zer?  
EULALI Bere alaba eztiola arrek emango, txorakeri ta zentzun gabeko gauzaz beteko duenari, ta arrazoi du! Naikoa da mundu onetan gaiztoen ta gaitzen beldurrez bizitzea, geronen buruari lan geiago sortu gabe.  
SERAPIO Bañan izeba, nik ori guztiai egiten diotet. Gaitz txar orri nola alde egin erakusteagatik.  
EULALI Ba, ba, ba.  
SERAPIO Gañeraz... nik nai dedana egingo det, osabari baimenik eskatu gabe. Nere buruaren jabe naiz. Osabari itz egin nai diot.  
EULALI Ezer eztezula esateko e?  
SERAPIO Bai ba... bai ba...  
EULALI Bai ba.

SERAPIO Bai ba.  
EULALI (*Une batean itxo egin ta*) Atoz ba bostetan. Txokolatea artzen arkituko dezu.  
SERAPIO Laister arte.

### AMAIRUGARREN AGERRALDIA

Andre Eulali, Luisa, Patxi

EULALI Etzaio aztuko etortzea ez. Kontxo, kontxo! laister ezkontzak ditugu. Ez dute ezer, ez dute ezer, bañan ez gogorik eztakatelako.  
LUISA (*atetik*) Etxekoandrea!  
EULALI Zer da?  
LUISA Señorito Pako.  
EULALI Orain ori? Arratsalde ederra daramat. Datorrela (*Luisa joan*) Kleto'k bere alabarentzat nai lukena. Neskak eztu nai... nik ere ez... Andarikoteko soñekoa eman bear nik.  
PATXI Emen naiz berriz, Andre Eulali (*eskuak luzatuaz*).  
EULALI Poliki e?  
PATXI Ta, Karmen?  
EULALI Oeratu egin da.  
PATXI A, bai! Bart lo gutxi egingo zuen ta gaur gabeen loak artu ez dezan.  
EULALI Ez, gabeen ere ondo egingo du. Ez dijoa teatrora.  
PATXI Nolatan ez?  
EULALI Alatan.  
PATXI Gabeen beon billa automobillarekin etorriko nintzala esatera bai netorren.  
EULALI Alperrik, gaur ez goaz. Karmen gaxo dago.  
PATXI Karmen? Zer du ba?  
EULALI Buruko miña.  
PATXI Orduan bigar.  
EULALI Ezta. Ez gaur joatea bakarrik, baizik aurrera ere zurekin ibiltzea galerazi egin dio aitak.  
PATXI Zergatik?  
EULALI Eztakit, bañan...  
PATXI Andre Eulali, ezin diteke ori egia izan.  
EULALI A, ez?...  
PATXI On Kleto'k ori esan dionik ezin sinistu det.  
EULALI Etxean eztago; irten da.  
PATXI Ez al da beti bostetan etortzen zerbait artzera?  
EULALI Bai.  
PATXI Etorriko naiz, lenago kalean ikusten ezpadet.  
EULALI (*alde batera*) Kontxo, kontxo! Bestea baño beroago dago au... ta nere anaiak baiezkoa emango dio.  
PATXI Gero arte.

EULALI Begira Patxi; atoz nai badezu aitarekin egotera, bañan jakin bear dezu alabak nai duena bakarrik egingo dula. Badakizu asiera onak eman dizkagula emen ta erbesteko ikastetxe onenetan, ta ikasi ta ikusitakoaz, oitura egokiak artu ditulako, bere lagunetan ere ori bera arki nai du.

Aberatsa zera, mutil ona, bañan ori ez da ezer nere illobarentzat. Nere iritzi batez, ta au esanaz ez uste ematen dizutanik aurrerapenik, ta ez baietzik ta ez ezetzik, nere illobak naiko luke senargaitzako mutil jakintsu bat, ta zu etzera; tankera egokikoa, ta zu, barka zaidazu, trakets xamarra zera. Serapio, Karmelo, Antonio... olakoak.

PATXI Serapio?

EULALI Bai, Serapio. Dirurik ez izan arren nun nai agertzeko gauza da, zer nai gaietan ongi itzegiten du; idazten ere ederki daki. Ara! gaur bertan ekarri digu berak egindako lan bat.

PATXI Tuberculosis edo gai orretan egin duena?

EULALI Bai.

PATXI Neri ere eman dit. Emen dakat.

EULALI Irakurri zazu ba. Gauz asko ikasi zenezake orri oietan.

PATXI Irakurriko det. Bañan Karmentxorekin nai nuke egon.

EULALI Ezin zenezake gaur.

PATXI Aitarekin orduan.

EULALI Atoz bostetan.

PATXI Etorriko naiz (*joanaz*) Sendagille, ez, osasuna dutenen iltzalle ori nere aurrean jarri?... ez...

#### AMAL AUGARREN AGERRALDIA

Andre Eulali, Luisa ta Karmen

EULALI Ia bostak (*tinbrea jo ta Luisa etortzen danean galdetuko dio*) Etxekoandre gaztea bere gelan al da?

LUISA Ez, andrea. Aiztin irten da, ta loreari ura botatzen ari da.

EULALI Datorrela. (*Luisa joan*) Joango zitzaion asarre aundiena. A, gaxoa! Igaro zaizkitzu neskatillen jolas-garaiak, ta datozkitzu andieen buru austeak.

KARMEN (*Oso bare, eskuan lore bat*) Zer bear du?

EULALI Bostak dira. Aita laister emen da ta maia jarri zangun. (*Loreari usai egin ta utziko du josteko mai gañean. Jaso lanean erabilli dituzten gauza guztiak ta maia bera ere bazartu. Gero erdiratu beste maia izketan ari diran bitartean*). Atera ontzi onak.

KARMEN Gaur?

EULALI Bai, ta iru txokolateen orde z egin ditzala Luisa'k bost. Ta pastel batzuek ekarri ditzala.

KARMEN Norentzat? Zein dator gaur?

EULALI Eztakit, bada ezpada ere jartzera nijoa.

KARMEN Bañan izeba, ez nago ni gaur iñoren aurrean egoteko. Eztet neretzat egingo.

EULALI Gurekin artu bear dezu. Beingoagatik, naiz gogorik ez, egin zazu nik agintzen dizudana. Zure onbearrez da.

KARMEN Egingo det. Nor dira bi oiek?

EULALI Serapio ta Patxi.

KARMEN Izeba, zer eskatzen dit? Oien aurrean ni gaur jartzea?

EULALI Orixen bera. Aitak ikusi dezan oiekin zuk ezer eztezula.

KARMEN (*Ezpetan une batean egon*) Egongo naiz...

EULALI Eztakit ez ote dan aita etxean sartu.

KARMEN Orduan sukaldera noa (*atzetik irten*)

EULALI On utsa da nere illoba, on utsa.

### AMABOSGARREN AGERRALDIA

Andre Eulali ta Kleto

KLETO (*sartu baño lenago entzungo dira parrak*) A, ja, ja.. a, ja, ja, ja,...!

EULALI Gizona, arritzekoa da zu gaur parrez ikustea.

KLETO Nola eztet ba par egingo. Naiago nuke Serapio emen balego. **aja...** ajaja!...

EULALI Zer arki dezu orren parragarri?

KLETO Nik ikusi detana ikusi bazuen!

EULALI Zer ikusi dezu ba?

KLETO Bi mutil koxkor...

EULALI (*ixildu arazi naian*) E!...

KLETO *Bueno*;... beren... aldameneko iturritik ura bota autsetara, ta beatzaz nastuaz morteroa egiten ari ziran...

EULALI Ta zu, zikin tzar ori! begira egon.

KLETO Gogoratuaz *mikrobioen* beldur gabe guk egiten genituenak.

EULALI Ba!, atera dira *mikrobioak*.

KLETO Batek arpegian liberdi bat lokatz bazeukan.

### AMASEIGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Serapio

SERAPIO (*biai esku emanaz*) Arratsalde on.

EULALI (*berez*) Bat.

SERAPIO Izeba?

EULALI Kaxo, Serapio.

SERAPIO Osaba nola dago?

KLETO (*pixka bat arritu ta eskua luzatu*). Parrez mutil, ja, ja!... Ez al dituk or bi mutil koskor ikusi?

SERAPIO Nun, kalean?

EULALI Ba, ba, ba, gizon **oien** ateraldiak.  
KLETO Bai, kalean. Ilko dituk laister... ez titek gabarik arrapatuko...  
SERAPIO Zer da ba? okerren bat? atsekaberen bat?  
KLETO Mutil, kaleko autsetan biok **orrea** egin, beatzaz nastu, ta gero gixonak pintatxen ari itukan.  
SERAPIO Ta orrengatik il?  
KLETO Ik esaten ez dek ba *mikrobioak* autsetan ta zikiñetan egoten dirala, ta kutsutu ezkeru...  
SERAPIO Nik ori esaten det al dan geiena garbitasuna egitearren.  
KLETO Bai, ta ez kutsutzeko batek dakan xuxtar goxoa ezingo zioke besteari eman. Ua ori mutillai erakustera.  
SERAPIO Urte orretan ez du gaitz orrek kalte geiena egiten.  
KLETO Ez ba aurrak gu baño gogorrakoak diralako, bañan bai xurrutak ta griña txarrak barrena errea ez takatelako. Orretan, orretan gogor egin bear zenuteke.  
SERAPIO Danetan egiten degu. (*bitarte onetan Luisak ekarriko du txokolatea*)  
KLETO Osaba, bi itz egin nai nituzke berorrekin.  
EULALI Txokolatea artuaz egingo dek. Izango dek iretzat ere.  
KLETO Bai, bai, exeri.

## AMAZAZPIGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Karmen ta Luisa

(*Luisa ibilliko da sartu-aterean*)

KARMEN Arratsalde on.  
SERAPIO Bai zuri ere, Karmentxo.  
EULALI Luisa, ekarri beste bat (*Serapi'ori*) artuko al dezu?  
KLETO Artuko ez du ba. Gure *mikrobioak* jateko beldur ez baldin bada beintzat.  
SERAPIO Ez naute orrenbeste ikaratzen.  
KLETO Batzuek jateko premian ago ba, ea gizentzen aizen.  
EULALI Exeri ba, exeri. Zu emen, ta zu emen (*Karmen ta Serapio alkarren ondoan*)  
LUISA Pako jauna dator. Berorrekin egon bear dula.  
EULALI (*bigarrena*) Datorrela.  
KLETO Orain, emakumea?  
EULALI Len maukutsik zeundela sartu dezu, ta orain kezka.  
KLETO Len ez nion txaketa eskañiko, bañan orain txokolatea eman bearko diot.  
EULALI Jan zazu zuk zurea. Orrentzako izango da beste bat.  
SERAPIO Barkatu, bañan ni banoa.  
EULALI Zu ez, ondo zaude. Karmen, eman zaiozu beste pastel bat.  
KARMEN (*beatzakin artuaz*) Ai!... Beatzakin artu det...  
SERAPIO Ta zer dio orrek... ekatzu.



## EMEZORTZIGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Patxi

*(Nabarmen agertuko da guanteak jantzita, txapela bi eskuetan darabilkila ta bera ere ibilliko da batera ta bestera eseri gabe).*

PATXI Arratsalde on.  
EULALI Ongi etorri.  
PATXI Nator.. nator...  
KLETO Oi! Txoratu egin al da ori?  
PATXI Nator...  
KLETO Eseri zaitea. *(zutik jarrai)*  
EULALI Artuko dezu gurekin txokolatea, atoz.  
PATXI Ez, eskarrikasko. Ez det nik iñon ezer artzen... etxean bakarrik... Ez bai dakit ontziak ongi garbituak dauden ere-ta.  
  
KLETO E?  
PATXI Bai ba, gure etxean dana *sublimado*' rekin garbitzen dute.  
SERAPIO Jos! Ori astakeria!  
KLETO Zer dio orrek?  
EULALI Zure liburuan irakurri du.  
SERAPIO Nik eztet ori esan.  
EULALI Pastel bat jango al dezu?  
PATXI Tira ba. Estimatziaz.  
KARMEN Tori *(luzatuko dio platera pastelakin; beatz muturraz eltzen dio Patxik, eta lurrera erortzen zaio)*.  
  
PATXI Ai! *(Karmen jasotzera)*  
SERAPIO Utzi, jasoko det.  
KARMEN *(jaso ta eskañiaz)* Tori.  
PATXI Nik ori jan? nik ori jan? ez orixen! lurrean ibillitako pastela... zikin ta mikrobioz betea. *(Karmentxo lotsatu ta biurtuko da maiera pastela uztera)*.  
  
SERAPIO *(altxa ta bat batean)* Karmentxo ekatzu.  
KARMEN Au... lurrean zikindua?  
SERAPIO *(eskutik ateriaz)* Ori.  
KLETO Egietan erotu al da ori?  
EULALI Guk artu arte zaude ba or. Nai badezu zutik ta bestela eserita.  
PATXI Eskarrikasko. *(Patrikaratik aterako du pañuelo bat ta astinduko du silla. Eseriko da. Gero asiko da eztulka)*. Ejun! ejun!...  
  
KARMEN Aita, pastel bat.  
PATXI Ejun! ejun!...  
KLETO Ara bestea berriz!  
PATXI Juu! juu!...  
KLETO Katarro txarren bat arrapatu al dezu?

PATXI Ez, bañan garbitasun gauzetan gaurko jakintsuak erakusten dute  
eztarria maiz garbitu bear dala.  
KLETO Ba, aspertu nazu ainbeste txorakerirekin. Ospa emendik!  
EULALI Bañan gizona, utzi zaiozu.  
KLETO Alde emendik!  
PATXI Berorrek neri ori egin?  
KLETO Emakumea, eztarriko zulotik pasa ezin bai det txokolatea... dijoala.  
PATXI Joango naiz... bañan etorriko naiz oraindik Karmenxorekin  
egotera... ta orrek ez nau onela bialiko... agur... (*joaten danean  
guziak parrez*).

#### EMERETZIGARREN AGERRALDIA

Lengoak Patxi gabe.

KLETO Ori da iñozoa! Ollaskoa zirudin!... kukurruka! (*guziak parrez*)  
EULALI Arrek ez bañan zuk kanta zenezake kukurruku!  
SERAPIO Nik?  
KLETO Bañan ori nork txoratu du?  
EULALI Zure alabak.  
KARMEN Nik, izeba? (*altxa guziak*)  
EULALI Zuk. Emen agertu da ongi "gai dagonaren indarra". Ezer agindu  
gabe, begira zer egin duten zuregatik bi gizonak.  
KLETO Bat zoratu, ta bestea... zintzotu.  
SERAPIO Osaba, nik berorrek itz egin nai nuke.  
KLETO Gabean egingo diagu. Antzokira labak joango gaituk. (*Bi eskuak  
emanaz*) Osaba, eskarrikasko.  
EULALI Ta zuk? zer diozu Karmen?  
KARMEN Izeba... eskarrikasko (*poz aundiarekin izeba laztandu*).

AMAIA